



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Ismael Fidalgo eta gerra osteko artisten belaunaldia

- **Erakusketa barria inauguratu da Bizkaiko Batzar Nagusien Erakusketa Aretoan.**

Bilbon, 2012ko abenduren 11n

“Ismael Fidalgo eta gerra osteko artisten belaunaldia” deritxo Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa barria. Ismael Fidalgo margolari enkarterritarra ardatz dauela, erakusketa horretan biltzen dira artista entzute handikoen lanak, esaterako Jorge Oteiza, Agustín Ibarrola, Mentxu Gal edo Iñaki García Ergüñenak. Horreen ondoan be erakusgai izango dira Antonio Santafé Largacha, Fernando Maidagán, Arturo Acebal Idígoras, José Barceló, María Dapena, Norberto Ariño de Garay, Ricardo Toja, José Luis Apezetxea, Ana Mari Marín, Pelayo Olaortúa, Javier Murga eta Ismael Fidalgoren beraren lanak be.

Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak egin dau aurkezpena bertara bildu diran, eta esan dau “gaur aurkezten dogun erakusketeagaz ezagutarazo eta erakutsi gura dala XX. mendeko euskal estetikaren zati bat markatu eben artisten belaunaldia”. Artista guztiak dira Ismael Fidalgoren (1928-2010) garaikideak eta “euskal artisten hirugarren belaunaldi” edo “gerra osteko belaunaldi” deitu ohi dan horretan sartzen dira, Gerra Zibilaren osteko urte ilunetan heldutasuna jadetsi ebenak, kulturearen aldetik hain gogorrak izan ziran urte hareetan.

Erakusketa hau Ismael Fidalgo “meatzetako margolaria” zanaren ganeko beste erakusketa baten osagarri da, hain zuzen Enkarterrietako Museoan (Abellanedan) eta urtarrilera arte zabalik dagoanarena. Bilboko erakusketa hau nahitaezko osagarria da, baldin eta hobeto ezagutu gura badogu zertan zetzan margolari eta artista hareen bizipena eta zenbaterainokoak izan ziran alkarrenganako eraginak. “Fidalgo gidaritzat erabili dogu euskal arte modernoaren nondik norakoak zehaztu ebezan artista horreetariko asko “dendostetik” atarateko” generatu dau Madariaga andreak.

Batzar Nagusien erakusketa aretoa txiki geratu da gaur arratsaldeko inaugurazino ekitaldian. Bertaratu diranen artean egozan, esaterako Ana Madariaga eta Jon Andoni Atutxa –Batzar Nagusien izenean-, Agustín Ibarrola, Iñaki García Ergüin, Javier Barrio, Norberto Ariño de Garai, Roberto Sáenz de Gorbea (Xabier Sáenz de Gorbea erakusketako komisarioaren anaia), Amalio García, Juanxun Picaza, María Jesús Galindez -José Barcelóren alarguna-, eta artisten lagun eta senitartekoak, batez be Ismael Fidalgorenak.

Erakusketea urtarrilaren 12ra arte izango da ikusgai, 9:00etaik 21:00etara astegunetan eta 13:30etara arte zapatuetan. Domeka eta jaiegunetan itxita egongo da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Ismael Fidalgo y la generación de artistas de la postguerra

- **Inaugurada hoy la nueva muestra de las Juntas Generales de Bizkaia en la Sala de Exposiciones con obras de Oteiza, Ibarrola, Mentxu Gal y García Ergüin, entre otros.**

Bilbao, a 11 de diciembre de 2012.

“Ismael Fidalgo y la generación de artistas de la postguerra” es la nueva exposición de las Juntas Generales de Bizkaia que, tomando como eje al pintor encartado Ismael Fidalgo, recoge obras de artistas tan relevantes como Jorge Oteiza, Agustín Ibarrola, Mentxu Gal o Iñaki García Ergüin. Junto a ellos también se exhiben cuadros de Antonio Santafé Largacha, Fernando Maidagán, Arturo Acebal Idígoras, José Barceló, María Dapena, Norberto Ariño de Garay, Ricardo Toja, José Luis Apezetxea, Ana Mari Marín, Pelayo Olaortúa, Javier Murga y el propio Ismael Fidalgo.

La Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, ha dicho en la presentación que la muestra “pretende poner en valor y dar a conocer una generación de artistas que, con su obra, marcaron parte de la estética vasca del siglo XX”. Todos los artistas son coetáneos o maestros de Ismael Fidalgo (1928-2010) y pertenecen a la denominada “tercera generación de artistas vascos” o “generación de la postguerra”, artistas que se hicieron adultos en los grises años posteriores a la Guerra Civil, una época durísima en el plano cultural, desde donde surgieron muchas de estas figuras.

Esta muestra pretende ser un complemento a la mayor exposición que sobre Ismael Fidalgo, el conocido como “pintor de las minas”, se ha realizado hasta la fecha y que permanecerá abierta hasta el mes de enero en el Museo de Las Encartaciones (Abellaneda). La muestra de Bilbao configura un añadido necesario sobre el entorno artístico de Fidalgo para entender el momento vital en el que se formaron aquellos pintores y las influencias que unos y otros se transmitieron mutuamente. “Hemos utilizado la figura de Fidalgo como elemento guía para sacar de la trastienda a muchos de estos artistas que definieron las pautas del arte vasco moderno”, ha señalado Madariaga.

La exposición permanecerá abierta al público hasta el 12 de enero en horario ininterrumpido de 9 de la mañana a 9 de la noche, de lunes a viernes, y hasta las 13.30 horas los sábados. Los domingos y festivos estará cerrada.